

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

**JUBIZIRIK pentsiodunei edota hirugarren adineko pertsoneri bideratuta** egongo denez, haiek izango dira gure bezero nagusi edota potentzialak; baina **gazteen partehartzea ere** ezinbestekoa izango da gure enpresaren baitan.

Gure zerbitzua kontratatuko dutenak bizimodu sedentarioa izatera kondentatuta daudenak izango dira. Gizartearen begi bistaz, adin nagusikoak pentsiodun bihurtzen direnean merkatutik edota gizartetik, kasu larrietan, baztertuta geratzen dira, haien borondatearen kontra. Hortaz, horrekin ados ez daudenak, hau da; **bizimodu aktiboa** eraman nahi dutenek **gure laguntza eskuragarri** izango dute.

Gure bezeroen ezaugarri nagusienetarikoa **bizimodu aktiboa eskuratu** nahi izatea da; hau da, ariketa berriak eta ezberdinak egiteko prest egotea eta euren ekintzailetasuna eta ekiteko gogoia adieraztea garrantzitsuak izango dira proiektuan parte hartzeko.

Ezinbestekoa da ere **pentsaera eta jarrera irekia izatea**, ekintza berriak, toki berriak, kultura berriak... ezagutzeko aukera emango diegulako. Gure ekintzak baliagarriak izango dira **aurreiritziak apurtzeko**, bai adinekoei atxikitu zaizkietenak, bai beste kulturei, pertsoneri eta bestelakoei jartzen zaizkietenak ere.

**Elkarlana** funtzeskoa ikusten dugu, **pentsiodun eta gazteen arteko elkarlana sustatu** beharra dagoela uste baitugu. Beraz, **JUBIZIRIK**en parte hartu nahi duenak, elkarlanean aritzeko prest egon beharko du eta bere kideak errespetatu beharko ditu.

Gure proiektua **Euskal herrian** bizi diren pertsoneri **bideratuta** egongo denez, **Euskara** gehienbat erabiltzea nahiko genuke, hemengo kultura eta ohiturak bebestea funtsezkoa baita guretzat. Hala ere, **gatzelerak** bere tokia izango du, jende askok ez dakielako euskaraz hitz egiten eta bi hizkuntzak ofizialak direlako. Beraz, esan dezakegu, hizkuntza ez dela oztopo bat izango gure zerbitzua kontratatzerakoan, oso malguak izango garelako hizkuntzekin. Egia da **euskarari lehenetasuna** emango diogula, baina beste hizkuntzetan mintzatzeko prest egongo garela baita ere.

**JUBIZIRIK enpresa inklusiboa** izango denez, ez dugu onartuko arazo ekonomikoengatik inor kanpoan geratzea. Gure prezioak pentsiodunei egokituko dizkiegu, beraz, ez da gastu handia izango inorentzat. Hori horrela izanik, denek gure zerbitzua kontratatu ahal izango dute beraien egoera ekonomikoa edozein izanik. Horregatik, esan genezake gure bezeroen egoera ekonomikoa ez dela kontrako faktore bat izango gure zerbitzua kontratatzerakoan.

Bestalde, kontuan izan behar da gure bezeroen egoera fisikoa edota psikologikoa ez dela aztertuko gure zerbitzua kontratatzerakoan. Hau da, gure zerbitzua edozein motatako pertsonentzat **egokituta** egongo da, bai mugikortasun murriztua duten pertsonentzat, edota anistasun funtzionala dutenentzat ere. Horregatik, edozein pertsona izan daiteke gure bezeroa, **ezberdintasunak aberasten gaituelako**.

Aurretik komentaturiko arrazoi guztiak kontuan izanik, gure bezeroak hiru multzotan bereiziko ditugu:

1. Alde batetik, **bezero kirolariak edota aktiboak** izango ditugu. Hauek jarduera fisikoa egitea gustuko izango dute eta kirol desberdinak eta berriak praktikatzeko irrikitan egongo dira. Lehen aipatu bezala, **talde lanean aritzeko prest** egon beharko dira, proposatuko ditugun ariketa asko besteak laguntzea eta besteekin lan egiteko izango direlako. Ez dugu egoera fisiko jakin bat eskatuko, baina bai norberak bere ahuleziak ezagututa, **neurritz** eta zentzuz jokatzeari.
2. Beste aldetik, **intelektualak eta bidaiariak egongo dira, horrela deitu diegu** gure kulturarekiko eta atzerriko kulturekiko interesa eta jakinmina dutenei, eta horrekin zer ikusia dituzten ekintzak egitea gogoko dituztenei. Hauek **pentsamendu irekia eta tolerantzia** izan beharko dute, ezagutuko dituzten **kulturak errespetatu** behar izango dituztelako. Berdin gertatuko da bisitatuko ditugun herrialdeetako ohiturekin, bertara joatean bertako bizimodutara moldatu beharko baikara.
3. Azkenik, **bezero sozialak** izango ditugu. Hauen nahia beste pertsona batzuekin denbora pasatzea izango da, hauei ere **bezero pasiboak** deituko

diegu, haiek soilik besteekin hitz egitea, kartetara jolastea, jostea, jende berria ezagutzea... nahi izango dute, azken batean, **lagunak egitea** izango da haien xede nagusia.

AKTIBOAK	KULTURALAK	SOZIALAK
<p><b>Kiroletan</b> trebatu nahi direnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Jarduera fisikoa egitea gustoko dutenak.</li> <li>- Talde lanean aritzeko prest daudenak</li> </ul>	<p>Kulturetan interesa dutenak eta <b>bidaiatzea</b> gustoko dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Herrialde berriak ezagutu nahi dituztenak</li> <li>- Hizkuntzetan interesa dutenak</li> </ul>	<p><b>Jende</b> berria <b>ezagutu</b> nahi dutenak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Beste pertsonekin denbora pasatu nahi dutenak.</li> <li>- Lagunak egiteko prest daudenak.</li> </ul>

Nahiz eta gure bezero potentzialak **hirugarren adineko** pertsonak izago diren, planteatzen ditugun ekintza batzuk **gazteei** ere bideratuta egongo dira, aurretik aipatu bezala haien arteko **harremanak sustatzea** oso garrantzitsua delako guretzat, eta haientzat oso **aberasgarria**.

Gauzak horrela, gure merkatuaren segmentazioa **masiboa** dela esan dezakegu. Nahiz eta gure bezero potentzialak hirugarren adinekoak izan, **gazteek** ere modu aktibo batean **JUBIZIRIK**en parte izan daitezkeelako eta **JUBIZIRIK**ren hedabideen bitartez gure zerbitzua kontratatu nahi duen edozeinek parte har dezakeelako.